


IKASTOLAKO BERRIAK

2019KO URTARRILA

DBH: 12-16 URTE IKASTOLAN

Hurrengo orrietan DBH etaparen ikuspegi orokor bat eskaintzen da: Ikastolako egunerokoan ikasleek egiten dutena zer den, eta egiten duten horren atzean zer planteamendu eta asmo dauden aztertzen da.

**Otsailak 1 eta 2,
Ikastola are hobeto
ezagutzeko aukera**



DBH eta BATXILERGOKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

- ↪ Ikastolak lantzen dituen PROIEKTUAK
- ↪ Ikastolak erabiltzen dituen GELAK

BERTAN ERAKUTSIKO ETA AZALDUKO DIZKIZUEGU.

ETOR ZAITEZTE eta egin ezazu gurekin batera 12-18 urte bitarteko ibilbide osoa.

Otsailak 1: euskaraz arratsaldeko 5etan eta gaztelaniaz 6tan
Otsailak 2: euskaraz goizeko 10:15etan eta gaztelaniaz 11:30etan

Zatozte Ikastolara!



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lau ikasmailetan ari diren ikasleek, irakasleek eta gurasoek badeute, gure ustez, XXI. mendearen lehen laurden honetarako, parerik ez duen ikasmaterialen eskaintza: **ikaslearen irteera-profila ardatz** duen curriculuma, **kompetentzietan oinarritutako** kontzepzio didaktikoa, **euskal curriculumaren** garapenerako edukiak, prozedura diziplinar eta **metadiziplinarren lanketa**, **ikaskidetz**a, euskararen ardazturiko **eleaniztasuna** eta **hizkuntzen curriculum integratua** duten ikasmaterialak. Aldi berean, Heziberri 2020k ezartzen duen marko teorikoaren oinarriekin bat egiten du EKI proiektuak. Pedagogiaren osagai abangoardista horiekin

batera, **ikaskuntza digitalean** jauzi kualitatibo bat egin nahi izan dugu, eta lortu ere, lortu dugu. Hartara, EKI proiektuaren eskaintza bikoiztu egin dugu, paperean eta digitalean, biak konbinatuz, eta hautu digitala soilik egin nahi duenari bidea erraztuz. DBH etapan urratzen den bidea ez da, zorionez, bakarra. **Lehen Hezkuntzan** ere ari dira ezaugarri horiek guztiak jasotzen dituzten ikasmaterial berriak sortzen eta ekoizten.

Ezaugarri bereizgarriak



Euskal curriculumua du oinarri

Pertsonaren garapen osoa eta integrala bilatzen du: geure gurea den euskal kultura espezifikoaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratu, ondorengo ikasketak egin eta lan munduan aritzeko eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko.



Ikaslearen irteera-profila du helburu

Maila bakoitzean ikasleak bereganatu behar dituen ezagutzak, gaitasunak eta kompetentziak zehaztuta daude. Irteera profilaren arabera eraiki da hezkuntza-prozesuaren curriculum osoa.



Oinarrizko kompetentzia orokorrak ikasarloetan lantzen dira

Ez da nahikoa jakintza akademikoa eskuratzea. Edozein bizitza-egoeratan kompetentzia izatea lortu behar du ikasleak; pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten jakin beharko du.



Integrazioaren pedagogia du ardatz

Egoera erreal baten aurrean, ikasleak egoera horretan behar dituen baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitu behar du; bakarrik nahiz talde-lanean, irtenbideak aurkitzen saiatu behar du, eta ikasi duena egoera berrietan baliatu.






Ikaskuntza Kooperatiboa bultzatzen da

Taldean lan egiten dute. Ikaskuntzan oinarritutako esku-hartzea bultzatzen du. Lankidetzak konpartitua da helburu, eta, horretarako, kide bakoitzaren rolak aldeztu aurretik zehaztuko dira.



Euskararen ardatzuriko eleaniztasuna garatzen da

Hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du, euskararen ezagutza eta egoera bakoitzak eskatzen duen erabilera egokia ziurtatuz.



Konpetentzia digitalaren lanketa unitate didaktiko guztietan txertatzen da

Hautu pedagogiko berria izan da IKTen erabilera alor guztietan txertatzea. Ondorioz, IKTak hezkuntzaren zerbitzura jarri, eta haien bitartez onura pedagogikoak indartu dira. Unitate didaktiko, arlo eta ikasturteko helburuetan markatuta daude IKTaren lorpen-mailak, eta horien mesedetan, jakina, unitate guztietan konpetentzia digitala lantzeko berariazko jarduerak proposatzen dira.



Ebaluazioa oinarrizko konpetentzien lorpenean oinarritzen da

Ebaluaziorako proposamenean, ikasleak oinarrizko hezkuntzarako irteera-profilaren oinarrizko konpetentziak (diziplinarrak eta metadiziplinarrak) bereganatu dituen jakin nahi da. Hiru ebaluazio mota proposatzen dira:

- ↳ Ebaluazio diagnostikoa: unitate didaktikoa proposatzearekin batera, ikasle eta ikastaldeen egoera eta premiak ezagutzeko.
- ↳ Prozesuko ebaluazioa edo ebaluazio hezigarria: ikaslearen unean uneko indarguneak eta ahulgu-neak antzemateko, eta erabaki egokiak hartzeko.
- ↳ Ebaluazio egiaztatzailea: ikaslearen errendimendua neurtzeko eta neurri zuzentzaileak jartzeko.

Irakaslearen konpetentzia garatzen da



XXI. mendeko eskolak egungo ikasleen gaitasunak garatzera bideratutako ikas-egoerak sortu eta kudeatzeko gai izango diren irakasle konpetenteak eskatzen ditu. EKI proiektuak esplizitatzen duen proposamen kurrikularra gelara eramateko irakasleek izan behar dituzten irakas-gaitasun horiek eskuratzea ahalbidetzen duten ibilbide formatzaileak diseinatzean eta eskaintzean datza gure erronka.

Ikasgai guztien ikuspegi eta diseinu bateratua

Ikastolatan lantzen den Eki proiektuak **IKASLEA** hartzen du **ARDATZ** modura, **eta ikasgai guztien ikuspegi orokor koordinatu bat** ziurtatzen du. Izan ere, LH-tik DBH-ra pasatzean, ikasleak arlo eta irakasle gehiago izaten ditu, eta arriskueta bat da, ikasgai bakoitza era guztiz autonomoan eta isolatuan ematea, elkarren arteko koordinaziorik gabe. Ikastolak hasieratik ohartu ziren arrisku horretaz adibide batzuk jartzeko: Pentsa dezagun gaztelania gaian ahozko aurkezpenak egiteko jarraibideak irakatsi zaizkiela; euskara gaian, edo ingelesean, jarraibide horiek berak labur gogoraraztea nahikoa izango da; eta natur zientzietan edo gizarte zientzietan ahozko aurkezpenak egin behar dituztenean, jarraibide horiek berak erabili eta ebaluatu beharko dira.

Gauza bera gertatzen da beste hainbat eta hainbat prozedura eta gaitasunekin ere aplikatzeko unean; edozein modutako testuak ulertzeko prozesuan; ikasketa teknikak; lan monografikoak antolatzeko, egiteko eta aurkezteko unean; ikerketa lantxoak egiteko unean...

Aurretik diseinu orokor bat eta koordinazio lan bat ez badago, DBH-n, irakasle bakoitza bere ikasgai aritzen delarik, ezinezkoa gertatzen da alderdi horiek guztiak era bateratuan lantzea, eta azkenean ikaslea ateratzen da galtzaile. Hori da Ikastolek sortutako Eki materialaren ezaugarrietako bat: ikuspegi orokor bateratua, **irakasle-taldeari beren lana errazten diona, eta ikasleari onura dakarkiona.**



Gizartea aldatzen ari da, eta ondorioz, ikasleei eskaini beharreko irakaskuntza ere aldatuz eta berrituz joan behar da. Ikastolek hasieratik erakutsi dute metodologiaren eta teknologiaren alorrean berritzaile izateko borondatea eta gaitasuna: une honetan hezkuntza sare osora zabaldutako hainbat eta hainbat ekimen Ikastoletan hasiak dira. Une honetan ere San Benito Ikastola ahalegin handia ari da egiten eraldatzailea izaten; hau da, metodologia eta teknologia berriak aztertu, formazioa jaso eta geletan inplementatzen hasiak gara Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitartean. Bigarren Hezkuntzako zuzendaritzatik agertu dizkigute proiektu horietako batzuk.

Gaur egun esan behar dugu IKTeak guztiz txertatuta ditugula gure egunerokoan. DBH-DBHOko eraikinean gela guztietan dago sare konexioa, proiektorea eta audio sistema, eta horrez gain, elkarlana ahalbideratzen duten web plataformak ikasleen esku ditugu edozein tokitatik kontsultak egin eta lanean jarrai dezaten. HH eta LHn ere urratsak ematen ari dira aldaketei aurre egiteko.

↳ **2013-2014** ikasturtean, EKI proiektuaren hedapenaren lehenengoa izan zen SAN BENITO ikastolan. Ikasturte honetan DBH1en zeuden ikasleak.


↳ **2017-18** ikasturtean, EKI DBH etapa osoan hedatuta dago:

- ◆ DBH1en arlo guztiak paper euskarrian dituzte eta jarduerak digitalki lantzen dituzte.
- ◆ DBH2n hiru arlo digitalean lantzen dira.
- ◆ DBH3tik aurrera arlo instrumental guztiak digitalki lantzen dira.
- ◆ Batxilergoan, EKI ikaslea batxilergora heldu delarik, hainbat arlo Moodle plataformaren bidez lantzen dira.



↳ **2018-2019** ikasturtean:

- ◆ DBHn, hainbat arlo fusionatu egingo ditugu arazo-egoera baten barnean, disziplina desberdinen arteko elkarlana burutuz.
- ◆ Batxilergoan: Diziplinarteko erronken eta konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzetara egokitutako ikas-arloetako saioen arteko antolaketa egin dugu, ondoren gelan inplementatutako delarik.



Eleaniztasuna



Ingelesaren ezagutzak gero eta garrantzi handiagoa du gure gizartean. Ikasleak 4 urterekin hasten dira ingelesa lantzen. Eta DBH-ra iristean, bultzada berezia ematen zaio San Benito Ikastolan, bai ordu kopuruari dagokionez, bai metodologiari dagokionez:

- ↳ **DBHko lehenengo zikloan, astean 3 ordu eskaintzen zaizkio ingelesari.** Ikastolen Elkartek sorturiko materiala erabiltzen da. CLIL da erabiltzen den metodologia, hau da, ikasgai ezberdinak jorratzen dira ingelesez. Hizkuntzen pedagogiako Europako adituek frogatua dute, **hizkuntzak ikas-teko biderik eraginkorrena edukiak hizkuntza horretan barneratuaraztea** dela.
- ↳ **DBHko bigarren zikloan, astean 3 ordu izaten dituzte ingelesa** ikasgaietan, baina horrez gai **Gizarte Zientziak gaia ere ingelesez ikasten dute, astean beste 3 orduz.** Ikastolan duela 12 urte hasi ginen *gizarte zientziak* ikasgaia ingelesez ematen, eta esperientzia handia dago horretan: proiektua sendotua dago, eta unibertsitateak ebaluazio positiboa egin zion; ikasleak ere normaltasunez aritzen dira, eta gainerako ikasgaietan bezalako emaitzak lortzen dituzte. Bere garaian aitzindaria izan zen horretan ikastola, eta gaur egun, hezkuntzako agintariak bide hori ari dira bultzatzen.
- ↳ **Proiektuak jarraipena du Batxilergoan eta gai batzuk ingeles emateaz gain, ahozkotasuna lantzeko helburuarekin, atzerrian egonaldiak/elkartrukeak egiten dituzte.** Joan den ikasturtean eta ikasturte honetan, italiako (Saluzzo) ikastetxe batekin elkartrukea adostu eta burutzen ari gara.

Bestalde, eleaniztasunari dagokionez, ezin da **frantsesa** ahaztu. **DBH 1. mailatik Batxilergoko 2. maila arte eskaintzen da, aukerazko ikasgai modura**, amaieran oinarritzko komunikazio gaitasuna lortzeko helburuarekin. Ikastolek sortutako **Eleanitz Français materiala erabiltzen da**, eta **elkartrukeak/egonaldiak** egiten dituzte DBH2.zikloko ikasleek (Bretainia).

Iazko ikasturtetik aurrera, **Batxilergoko** ikasleek, **Alemana** ere aukerazko ikasgai modura dute.




Carhaix (Karaez) Bretainia



Saluzzo (Italia)

Teknologia berriak ikasmaterialetan


Begi-bistakoa da informatikak eta teknologia berriek gu guztion bizitzan nolako aldaketak ari diren eragiten: nahikoa dugu, berrik gabe, 10 urte atzera egitea, gertatzen ari den iraultzaz ohartzeko. Eta aldaketak gero eta azkarrago datoz. San Benito Ikastolaren borondatea da, gure ikasleak datorkien mundu horretarako ahal den ondoena prestatzea. Horretarako, ordutegian ahalegin berezia egiten da, eta **informatika** ikasgaia DBHko maila guztietan izaten dute ikasleek. Baina ziurrenera, horrek adinako garrantzia du, edo handiagoa, kompetentzia digitala garatzeko jarduerak **ikasgaietan, egunerokotasunean txertatzeak**: edozein gaitan teknologia berri hauek erabili behar izatea, gai horretako edukiak eta jarduerak eskuratzeko.



Donostia International Physics Center

Ikastolako bigarren batxilergoko zientzitako ikasleak Donostia International Physics Center (DIPC) eta Materialen Zientzia Zentroak (CSIC-UPV/EHU) bisitatzeko dute.

Ekimen honen helburua nanozientzia eta materialen zientzia arloan ikerketan diharduten profesionalen ibilbidea eta egunerokoa zertan datzan gazteei erakustea da. Hiru laborategi bisitatu zituzten, DIPCko Kalkulo zentroa, Nanofisika eta Nanozientzia Laborategia eta Polimeroen kimika laborategia. Ikerlariak laborategietako lanaren nondik norakoak azaldu zituzten, tresna eta makinak erabilpena erakutsiz eta beren lanaren helburuak azalduz. Ea urte batzu barru San Benitoko ikertzaile bat dugun!!!



Ibailde Programa



Ikastolak Ibailde programaren barruan dauden Ibailde kanpainen parte hartzen du. DBH 1. zikloko ikasleek Agauntza erreka aztertzen dute Ibailde kanpainan parte hartuz.

BTEK : PARKE TEKNOLOGIKO ETA ZIENTIFIKOA



Batxilergoko 1go mailako ikasleek Teknologiaren Interpretazio Zentroa bisitatzeko eta bertan dauden modulu, multimedia eta interaktiboekin gozatzeko aukera dute. BTEKeko helburua teknologia gizartera hurbiltzea da kultura zientifiko-teknologikoa sustatuz. **Gaia ugari lantzen dira bertan: I+G+B-n** liderrak diren erakundeak, sarea eta mundu digitala, material berriak, domotika, energia, nanoteknologia, bioteknologia, robotika eta jasagarritasuna, laborategi tailerra e.a.



BTEK-en, gune ezberdinak bisitatzeko dira: robotika, nanoteknologia, bioteknologia...Gune gehienak interesgarriak iruditu zitzaizkien aurretik ere ikasleei, azalpenez gain, gauzak ikusteko aukera paregabea izan zutelako. Horrez gain etorkizuneko etxeak nolakoak izango diren ikusteko aukera izan zuten: materialak, energia iturriak...

Zientzia Azoka

Elhuyarrek antolatzen duen jardunaldi honen bidez, ikasleak ikerketan eta ikertzaileen munduan murgiltzen dira, ikerketa-proiektu bat edo proiektu teknologiko bat aurrera eramateko. Proiektu baten prozesu osoa bizitzen dute hasierako ideia asmatzetik, prozedura diseinatu eta pausoz pauso gauzatu eta ondorioak atera arte ikertzaile baten laguntzaz. Baita, azoka batean haien lana erakusteko aukera ere.



Batxiko ikasleek pertsona ekintzaileak dituzten ezaugarriak ezagutu eta ikasten dituzte: ikuspegia, antolatzeko gaitasuna, komunikaziorako abilezia, negoziaketarako gaitasuna eta motibazioa.

Era berean, ekintzaileak diren pertsonen esperientziak zuzenean ezagutu ditzakete. Horretarako elkarrizketa digitalak egingo dituzte haiek ezagutzeko eta zalantzak eta galderak planteatzeko.

Startinova



Tutoretza eta orientazioa



San Benito Ikastolaren borondatea familiarekin elkarlanean ikasleen heziketan partaide izatea da. Eta hor, oso garbi **dugu pertsonekin lan egiten dela**, eta pertsonak ezagutza akademikoak baino askoz gehiago direla: pertsonaren alor guztiak hartu behar dira kontuan, eta guztiak era orekatuan garatzen ahalegin-du, familiarekin batera.

Eginkizun honetan, DBHn **tutorearen figurak garrantzi handia** jartzen du: bera izango da ikaslearentzat eta familiarentzat erreferente nagusia; ikasleari jarraipen akademikoa egingo dio, eta astean ordubeteko tutoretza saioa izango du, lan ohiturak indartzeko, giza jokabideak lantzeko, eta beste hainbat eta hainbat zereginetarako. DBHko **tutoretza-planak** aztertzean, ondorengo puntuak azaltzen zaizkigu nagusiki: ikasleari etapa berrira egokitzen laguntzea, inguruko herrietatik datozen ikasleak oso kontuan izanik; etxeko lanak (epe laburrekoak eta epe luzeagoak) antolatzen lagundu agendaren bidez eta jarraipena egin, eta orokorrean ikasteko ohiturak landu; ikasleen arteko harremanetan gerta litezkeen egoerak bideratzen saiatzea; giza balioak eta auto-estimua lantzea; inteligentzia emozionalerako baliabideak ematea; sustantzia arriskutsu eta kaltegarrien kontsumoa; sexu heziketa... Eginkizun horietan, jakina, familiak eta eskolak, biek jardun behar dute, bakoitzak bere esparruan.



Bestalde, kontuan izan behar da, bigarren hezkuntzan aurrera doazen eran, ikasleak pixkanaka beren etorkizuneko ikasketetarako urratsak ematen hasten direla: bakoitzak egin nahi duen ibilbidearen arabera ikasgaiak hautatu behar izaten ditu. Ez dira askotan erabaki errazak izaten: adin horietan zalantzak ugari izaten dira, eta horrek kezka eragiten ditu, bai ikasleengan bai familiengan. **Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, aukera eta interesetan oinarritzen da.** Irakasle taldeak ikaslearen aukerak eta gaitasunak ezagutzen ditu, eta horietan oinarritu ohi dira tutoreak eta irakasle taldeak **familia eta ikaslea era errealistan eta objektiboan orientatzeko** uanean. Lanabes desberdinak erabiltzen dira: ikaslearen ezaugarri akademikoetatik eta pertsonaletik abiatutako hausnarketak; orientazio testak (gaitasunenak eta interesenak); batxilergoko, moduluetako eta unibertsitateko ikasketei buruzko informazioa; lanbideei buruzko informazioa; hitzaldiak gurasoei eta ikasleei; alorreko espezialisten eta ikasle ohien lekukotasunak. Lan handia egin behar izaten da, adin honetako ikasleak bere burua dagokion lekuan kokatu dezaten.

Ikasleek errendimendu akademiko egokia eta giza garapen aproposa eta aberatsa lortu dezaten, Bizikidetzaren Planeko Golden 5 proiektuan oinarriturik, Adimen Emozionalaren lanketa curriculumean txertatuta dugu egunerokotasunean lantzen delarik.



DBH amaitu ondoren, batxilergoko ikasketak Ikastolan bertan egiten dira, horrek dakartzan abantailekin:

- Aldaketa beharrik ez. Ikaskide ezagunekin jarraitzea.
- Irakasleek ikaslearen ezaugarriak ezagutzea, hobeto lagundu ahal izateko.
- Proiektu bera eta programazio koordinatuak izatea DBHn eta Batxilergoan.

BATXILERGOAREN EZAUGARRIAK

- ↳ **Zientzia eta teknologiaren, eta Giza eta Gizarte Zientzien modalitateak eskaintzen dituen, unibertsitatera eta moduluetarantz doazenei egokituz.**
- ↳ **Bizitzako alor guztietan euskara erabiltzea bultzatzen duena.**
- ↳ **Euskararen ardazturiko eleaniztasuna garatzen duena: ikasgai bat edo beste ingelesez egiteko eta Alemana ikasteko aukera.**
- ↳ **Tutoretza eta orientazio akademikoa eta profesionala ardatz dituen.**
- ↳ **Ohitura osasuntsu (drogamenpekotasun prebentzioa, sexu heziketa, HIES,...) eta baloreak lantzen dituen.**
- ↳ **Banakako laguntza eskaintzen duena.**
- ↳ **Formazio zabaleko profesionalen eskutik ematen duena**
- ↳ **Tutoretza eta Orientazio akademiko eta profesionalaz gain, heziketaren inguruan proiektuak lantzen dituen**
- ↳ **Etorkizuneko ikasketen aurrean jartzen dituen**

JANTOKIA

Adin guztietako ikasleei eskainia. Bazkariak gure sukaldean bertan prestatuz eta horretarako formazioa jaso duten zainzaileen gidaritzaz, egunero zein egun solteetan.



GARRAIOA

Jasangarritasunaren alde egiteko helburuarekin, eta bailarako beste eragile batzuekin elkarlanean, garraio publikoa da gure garraio zerbitzuaren ardatza. Ataun, Beasain, eta Olaberriako ikasleek modu honetan erabiltzen dute. Hala ere, bailarako hainbat herrietako ikasleentzat eskola-ordutegi desberdinetara egokitua dago garraioa: Idiazabal, Mutiloa, Gabiria, Segura, Zerain.

HIZKUNTZA ESKOLA

Atzerriko hizkuntzen eskola eta Trinity College London ingeleseko azterketak Ikastolan bertan egiteko aukera dago San Beniton. Eskola orduz kanpo, Ikastolako ikasleek, metodologia propioa erabiliz, ingelesa lantzeko aukera dute. **Gure irakasleak esperientziadunak eta natiboak** dira. Eskolan **Trinity College London-eko azterketa egiteko aukera badago** eta First– Advance Cambridgeko azterketetarako ere prestakuntza berezia ematen da.

Hizkuntza eskola, ikastolako zati denez, ikastolako ingeleseko irakasleekin harreman zuzena mantentzen da eta honen ondorioz ikasleen beharrak ezagutzeko aparteko aukera dugu.

Gure akademian, kurtso guztiak talde bakoitzeko eta ikasle bakoitzeko beharra asetzeko prestatuta daude. Adinaren arabera, bi edo hiru ordu astean aritzen dira ikasleak, eta talde bakoitzean, gehienez 8 ikasle daude. Silvana Beaskoetxea da momentu honetan 215 ikastolako ikasle dituen akademiaren arduraduna. Urte askotako eskarmentua du berak gidatzen duen irakasle taldeak eta urtez urte ikastolako ikasleak prestatzen ditu ingelerako titulazio ezberdinak lortzeko. Momentu honetan **Preliminary English Test (PET) eta First Certificate azterketak ikastolan bertan egin daitezke.**



GURASO ORDEZKARITZA

Ikastolako Aginte Organoetan betidanik egon dira gurasoak. Lehen Ikastolaren Batzorde deitutakoan; orain, kooperatiba bihurtu ondoren, Artezkaritza Kontseiluan (16 kideetatik 11 gurasoen ordezkariak dira), Helegite batzordean eta Zaintza Batzordean <http://www.sanbenitoikastola.eus/eu/artezkaritza>

Gainontzeko gurasoak ere agente aktiboago bihurtzeko, gelako ordezkartzaren bidez, gure seme-alaben hezkuntzan gurasoekin eman beharreko komunikazioan Ikastolak aukera interesgarri bat ematen du. Garrantzizko urratsa, Ikastolaren bizitzan gurasoen inplikazioa eta parte hartzea bultzatu eta areagotu nahi duelako.

Bi helburu nagusi ditu: gurasoen parte hartzea bultzatu, bai ikastolako bizitzan, bai seme alaben heziketan eta gurasoen arteko komunikazioa bultzatu. Kontuan izan behar dugu seme-alabak ez ditugula familiak bakarka hezten, baizik eta taldean hezten direla.

ANTZERKIA

LH, DBH eta Batxilergoko ikasleek Lazkaoko Udaletxeak Ikastolaren antzerki-tailer batean aritzeko aukera dute. Antzerkigintzako teknika desberdinak ikasteaz gain, ikasturte amaieran antzezlan bat taularatzen dute. Kristina Roperro da irakaslea, eta urteak dira ume eta gazteekin tailerrak egiten dituela.



BERTSO ESKOLA

“Goierriko Bertso Eskolaren” eskutik ikastolan bertan aritzeko aukera dago ikasturtean zehar.

IKASTOLAKO BERRIAK



ESO: 12-16 AÑOS EN LA IKASTOLA

En las siguientes páginas se ofrece una perspectiva general de la etapa de enseñanza secundaria obligatoria (ESO): se explica en qué consiste el trabajo diario de los alumnos y se analizan también el planteamiento y sus objetivos.

**1 y 2 de febrero,
una oportunidad para conocer
aún mejor la Ikastola**



OFERTA EDUCATIVA DE ESO y BACHILLERATO

- ↪ PROYECTOS que desarrollamos en la Ikastola
- ↪ AULAS que se utilizan en la Ikastola

**UNA OPORTUNIDAD PARA CONOCER NUESTRO
COMPROMISO EDUCATIVO**

Acudid y realizar con nosotros todo el recorrido
de los 12 a los 18 años.

Día 1 de febrero: en euskara a las 5 y en castellano a las 6

Día 2 de febrero: en euskara a las 10:15 y en castellano a las 11:30

¡Os esperamos!





A través del proyecto EKI, se crea, produce y ofrece material didáctico para el **desarrollo del currículo vasco**, para contribuir a una educación cuyo eje será el euskera y la cultura vasca.

Basado en **competencias** y teniendo en cuenta **el perfil de salida del alumnado** que debe conseguir la competencia en cualquiera de las situaciones cotidianas de la vida: en el pensamiento y en el estudio, en la comunicación, en la convivencia, en el desarrollo de su propia personalidad así como en la acción y el emprendizaje. Se trata de intentar buscar una solución ante las diferentes situaciones, para poder emplear lo aprendido en ocasiones futuras. Ante una situación

real, el alumnado debe acostumbrarse a la búsqueda y empleo de diferentes recursos, sea de manera individual o en grupo, intentando encontrar soluciones y aprovechando lo aprendido en escenarios futuros.

El proyecto EKI se basan en la **pedagogía de la integración**, para facilitar la tarea de enseñanza al personal docente, para contribuir a un aprendizaje más ágil por parte del alumnado y para fomentar la participación de madres y padres en este proceso..

Características distintivas



Basado en el currículo vasco

Persigue el desarrollo personal integral de las personas: partiendo de la adquisición de las bases de nuestra cultura vasca y de la cultura universal, para posteriormente cursar los estudios con la mirada puesta en la incorporación en el mundo laboral y en el aprendizaje a lo largo de la vida.



Persigue el perfil de salida del alumnado

Los conocimientos, las aptitudes y las competencias que debe adquirir el alumnado en cada nivel están definidos. El currículo del conjunto del proceso educativo ha sido construido en función del perfil de salida.



Incide en las áreas de aprendizaje para lograr las competencias generales básicas

La adquisición del conocimiento académico es insuficiente. El alumnado debe conseguir su competencia en cualquiera de las situaciones de la vida: en el pensamiento y en el estudio, en la comunicación, en la convivencia, en el desarrollo de su propia personalidad así como en la acción y el emprendizaje.



Centrada en la pedagogía de la integración

Ante una situación real, el alumnado debe acostumbrarse a la búsqueda y empleo de diferentes recursos, sea de manera individual o en grupo, intentando buscar soluciones y aprovechando lo aprendido en escenarios futuros.






Fomenta el aprendizaje cooperativo

Trabajo en grupo. Fomenta la participación basada en el aprendizaje. Persigue la cooperación compartida, para cuya consecución se predefinen los roles de cada participante.



Desarrolla un multilingüismo cuyo eje es el euskera

Desarrolla un tratamiento integral e integrador de las lenguas, garantizando el conocimiento del euskera y su uso adecuado exigido para cada situación.



Implementa el desarrollo de las competencias digitales en el conjunto de unidades didácticas

La integración de las TIC en todos los ámbitos constituye una elección pedagógica pionera. Por lo tanto, se contribuye al fortalecimiento de las mejoras pedagógicas mediante la incorporación de las TIC al servicio de la educación. En las unidades didácticas y en los objetivos de las diferentes áreas y cursos se marcan los objetivos relativos a las TIC, para lo que se proponen actividades específicas con el fin de adquirir las competencias digitales en todas las unidades.



Basado en la adquisición de las competencias

La propuesta de evaluación persigue conocer si el alumnado ha adquirido las competencias básicas, tanto disciplinares como metadisciplinares, para el perfil de salida de educación. Se proponen tres tipos de evaluación:

- ↳ Evaluación diagnóstica: junto con la propuesta de la unidad didáctica, para tener conocimiento de la situación y las necesidades del alumnado y del grupo.
- ↳ Evaluación de proceso o evaluación educativa: permite la detección de las fortalezas y debilidades del alumnado, para poder tomar las decisiones oportunas.
- ↳ Evaluación verificadora: permite medir el rendimiento del alumnado y establecer medidas correctoras.

Desarrolla la competencia del profesorado



La escuela del siglo XXI requiere un personal docente capaz de crear y gestionar situaciones de aprendizaje dirigidas al desarrollo de las aptitudes del alumnado actual. Nuestro reto consiste en el diseño y en la oferta de trayectorias formativas que permitan la adquisición de las aptitudes para la enseñanza exigibles al personal docente, de modo que puedan trasladar a las aulas la propuesta curricular explicitada por EKI.

Coordinación, diseño y planteamiento unificado

El proyecto EKI utilizado en las ikastolas toma al **alumno** como **eje** principal y asegura un **planteamiento general coordinado en todas las asignaturas**. De hecho, al pasar de primaria a la ESO, el alumno tiene más asignaturas y profesores, y uno de los riesgos es que se imparta cada asignatura de forma aislada y de una manera totalmente autónoma, sin coordinación entre ellas. Las ikastolas enseguida se percataron de ello.

Por ejemplo: imaginemos que en Lengua Castellana se les han enseñado diferentes pautas para llevar a cabo presentaciones orales; en Euskara o Inglés bastará con repasarlas brevemente, y en Ciencias se tendrán que utilizar y evaluar las mismas pautas a la hora de exponer de forma oral diferentes temas. Ocurre lo mismo con otros muchos procedimientos y capacidades: durante el proceso de redactar textos de diferente tipología, al aplicar las técnicas de estudio, al organizar trabajos monográficos, al realizar tareas de investigación...

Si no hay un trabajo de coordinación y un diseño general previo, dado que en la ESO cada profesor imparte su asignatura, se imposibilita trabajar todos esos aspectos de forma unificada, y al final, es el propio alumno el que sale perdiendo. Esta es una de las claves del material EKI: un planteamiento general unificado, que **facilita la labor del profesor y beneficia al alumno**.



En la sociedad actual los cambios se producen constantemente, y la enseñanza tiene que adaptarse y renovarse. Las Ikastolas han mostrado desde su inicio la voluntad y la capacidad de ser innovadores en la metodología que se emplea en las clases: muchas de las innovaciones que durante estos años se han extendido a toda la red educativa dieron los primeros pasos en las Ikastolas.

La Ikastola San Benito también está haciendo un esfuerzo por explorar los diversos proyectos de innovación: analizamos nuevas metodologías y tecnologías, recibimos formación y llevamos la implementación al aula. La dirección de Educación Secundaria nos muestra algunos de estos proyectos que se llevan a cabo en secundaria.

Hoy en día podemos afirmar que las TIC están totalmente integradas en nuestra labor diaria. En todas las aulas del edificio DBH-DBHO hay conexión de red, proyector y sistema de audio y, además, el alumnado cuenta con plataformas web que les posibilita el trabajo grupal para que puedan hacer consultas y trabajar desde cualquier punto del edificio. En Educación Infantil y Primaria se están tomando medidas para hacer frente a los cambios futuros.

✦ La Ikastola comenzó el curso **2013-2014** con la implantación del proyecto EKI en SAN BENITO, con los alumnos/as que estaban en 1º de la ESO.

✦ En el **2017-2018** esta metodología centrada en la pedagogía de la integración estaba implantada en toda la etapa de la ESO:

- ◆ En 1º de la ESO todas las asignaturas se trabajan con libros, aunque la mayoría de las actividades se desarrollan digitalmente.
- ◆ En 2º, tres de las asignaturas se trabajan en formato digital.
- ◆ A partir de 3º todas las asignaturas instrumentales están en formato digital..
- ◆ En Bachillerato, a donde el alumnado de EKI, se utilizó la plataforma de Moodle para trabajar algunas asignaturas.

□

✦ En el curso **2018-19**:

- ◆ Se fusionan varias asignaturas en una sola situación-problema, llevándose a cabo un trabajo integral entre diferentes disciplinas.
- ◆ En Bachillerato: se trabaja en ciertos ámbitos con un modelo competencial donde se realizan proyectos llevando a cabo un trabajo interdisciplinar (teniéndose en cuenta tanto los contenidos como las competencias metadisciplinarias).





El conocimiento del inglés ha ido cobrando cada vez más fuerza en nuestra sociedad. Los alumnos empiezan a aprender esta lengua con cuatro años y en la etapa de la ESO se le da una atención especial tanto con respecto al número de horas impartidas como a la metodología empleada:


- ↳ **En el primer ciclo** de la ESO se imparten **tres horas semanales** de inglés. El material empleado es el creado por “Ikastolen Elkarteak”. La metodología que se aplica se llama CLIL, donde además de los contenidos específicos de la propia materia se les enseña otros de otras materias pero en lengua inglesa: los especialistas en pedagogía de las lenguas han comprobado que el camino más efectivo para aprender idiomas **es interiorizar los contenidos en la lengua que se enseña**.
- ↳ En el **segundo ciclo** de la ESO se imparten **tres horas semanales** de lo que es la asignatura de **inglés** propiamente dicha, pero además se imparten otras **3 horas semanales** de la asignatura de **Ciencias Sociales en inglés**. Hace ya diez años que en la Ikastola se comenzó con este proyecto y por lo tanto, después de esta experiencia se puede decir que la valoración es positiva: el proyecto está consolidado
- ↳ El proyecto tiene continuación y, en **Bachillerato**, se imparten algunas asignaturas en inglés además de realizar intercambios/estancias en el extranjero con el objetivo de practicar el idioma. El pasado curso y el actual hemos hecho un intercambio con una escuela italiana (Saluzzo).

Por otra parte, y en cuanto al plurilingüismo se refiere, cabe destacar el papel que desempeña el **Francés** en nuestro centro. Se ofrece como **asignatura optativa desde 1º de la ESO hasta 2º de Bachillerato**, con el objetivo de alcanzar un nivel adecuado de comunicación. Utilizamos el **material didáctico creado por las Ikastolas, Eleanitz Français** y en el 2º ciclo de la ESO se realiza un interesante **intercambio/estancia** (Bretaña).

También a partir de este curso el alumnado de **Bachillerato** tiene como optativa la asignatura de **Alemán**.



Calhaix (Karaez) Bretania



Saluzzo (Italia)

Las nuevas tecnologías como material escolar

Resulta obvio el cambio que la informática y las nuevas tecnologías han supuesto en el día a día de todos nosotros: no hay más que retornar diez años en el tiempo. Estos cambios son cada vez mayores y más rápidos.

En cuanto a la Ikastola San Benito se refiere, tenemos como objetivo preparar a nuestro alumnado para que sea capaz de responder adecuadamente ante estos cambios.

Además de impartir la asignatura de informática en todos los cursos de DBH, consideramos de igual importancia el hecho de **aplicar la informática** en el día a día **del resto de las asignaturas** para desarrollar la competencia digital.



Donostia International Physics Center

Los alumnos/as de ciencias


de 2º de bachillerato visitaron el viernes International

Physics Center (DIPC) y el Centro Científico de materiales de Donostia.

El objetivo de esta visita es mostrar a los jóvenes en qué consiste el trabajo diario de los profesionales que trabajan en el campo de la nanociencia y la ciencia de los materiales. Visitaron tres laboratorios, el centro de Cálculo DIPC, el laboratorio de Nanofísica y Nanociencia y el laboratorio químico de Polímeros.

Los investigadores mostraron en qué consiste el trabajo de los laboratorios, enseñando el funcionamiento de las máquinas y explicando los objetivos de su trabajo.

¡A lo mejor en el futuro tenemos algún/a investigador/a de San Benito!



Programa Aztertu



Nuestra Ikastola participa en el proyecto Ibaialde del programa AZTERTU. Los alumnos de 1º de la ESO han analizado parte de la ribera del río Agunza en la campaña Ibaialde.

BTEK : PARQUE TECNOLÓGICO Y CIENTÍFICO



Los alumnos de 1º de Bachiller tienen la oportunidad de acercarse al Centro de Interpretación de la Tecnología del Parque Científico y Tecnológico de Bizkaia. Este parque tiene como objetivo acercar la tecnología a los jóvenes, sobre todo a los estudiantes de educación secundaria y bachiller, impulsando la cultura científica-tecnológica. Se trabajan diferentes temas: la Innovación, entidades líderes en I+D+i, la red y el mundo digital, nuevos materiales, energías renovables, nanotecnología, domótica, biotecnología, robótica y sostenibilidad... Se visitan las diferentes áreas en las que está dividido el edificio: robótica, nanotecnología, biotecnología, futuro: sus materiales, fuentes de energía... También se participa en talleres, mediante experimentos.”



Feria de la Ciencia

A través de este concurso, los alumnos están inmersos en el mundo de la investigación y de los investigadores, para llevar a cabo un proyecto de investigación para desarrollar una tecnología o proyecto. Los alumnos experimentan todo el proceso de un proyecto: desde la idea inicial de inventar, diseñar un proceso y, paso a paso, realizarlo y obtener conclusiones con la ayuda de un investigador. Además, tienen la posibilidad de que su trabajo sea expuesto en una feria.



Los alumnos/as de Bachiller conocen y aprenden las características de las personas emprendedoras: la visión, la capacidad de planificación, la habilidad de comunicación, la capacidad de negociación y la motivación.

Así mismo, podrán conocer experiencias en primera persona de emprendedores, gracias a la realización de charlas digitales en las que podrán conocerles y plantearles sus dudas y preguntas.

Startinnova



Tutoría y orientación



La voluntad de la Ikastola San Benito es tomar parte en la educación de los alumnos en colaboración con las familias. Tenemos muy claro que **trabajamos con personas** y que las éstas son mucho más que conocimientos académicos: hay que tener en cuenta todos los aspectos de las personas e intentar desarrollarlas de una manera equilibrada, en colaboración con las familias.

En esta labor, en la ESO, es muy importante la **figura del tutor**: el tutor será el referente principal tanto para el alumno como para la familia; realizará el seguimiento académico del alumno y todas las semanas impartirá una hora de tutoría con objeto de reforzar tanto los hábitos de trabajo como los comportamientos humanos. Al analizar los **planes de tutoría** de la ESO, principalmente destacan los siguientes puntos: ayudar al alumno en la adecuación a la nueva etapa, teniendo en cuenta los alumnos venidos de los pueblos de alrededor; ayudar a organizar las tareas a realizar en casa y hacer un seguimiento de los mismos y en general reforzar los hábitos de estudio; intentar encauzar situaciones que puedan surgir en las relaciones entre los alumnos; reforzar los valores humanos y la autoestima; aportar medios para la inteligencia emocional; consumo de sustancias peligrosas y perjudiciales; educación sexual. En esas tareas, deben colaborar tanto las familias como la Ikastola, cada una en sus respectivos ámbitos. Por otra parte, hay que tener en cuenta que a medida que avanzan en la Educación Secundaria, los alumnos empiezan a decidir sobre los estudios que tienen intención de cursar en el futuro: cada alumno tiene que seleccionar las asignaturas necesarias para realizar los estudios deseados.



No suelen ser decisiones fáciles: a esas edades surgen múltiples dudas tanto para los alumnos como para las familias. **La orientación** se basa en las habilidades, capacidades, elección e intereses de los alumnos. El grupo docente conoce la elección y las capacidades de los alumnos y en eso se basan los tutores y el grupo de profesores a la hora de **orientar a la familia y al alumno de una manera realista y objetiva**. Se utilizan diferentes herramientas: reflexiones partiendo de las características académicas y personales del alumno; test destinados a la orientación relativos a capacidades e intereses; información relativa a las diferentes profesiones; charlas tanto a padres como alumnos; testimonios de antiguos alumnos en las diferentes especialidades. Hay que realizar un gran trabajo para que los alumnos de estas edades se ubiquen en la especialidad que verdaderamente les corresponde.

Fundamentándonos en el **proyecto Golden 5 del Plan de Convivencia**, el trabajo que se realiza desde



de la **Inteligencia Emocional** está integrado en el currículo y se aplica en el trabajo diario para que **los alumnos/as logren el rendimiento académico adecuado y un desarrollo social apropiado y valioso**.

Tras acabar la ESO se realizan los estudios de Bachillerato en la misma ikastola, con las ventajas que ello conlleva:

- Continuar con los mismos compañeros, sin necesidad de cambiar de centro.
- Los profesores conocen a los alumnos, y pueden ayudarles mejor.
- Mismo proyecto y coordinación en las programaciones de ESO y Bachillerato.

CARACTERÍSTICAS DEL BACHILLERATO:

- ↳ Se ofrecen las modalidades de **Ciencia y Tecnología, y de Ciencias Sociales y humanidades. Adecuada a los itinerarios de universidad y módulos de grado superior.**
- ↳ **Anima al uso del euskara en todas las facetas de la vida.**
- ↳ **Desarrolla un multilingüismo cuyo eje es el euskara: oportunidad de estudiar asignaturas en inglés y de aprender alemán.**
- ↳ **Tiene por eje la tutoría y la orientación académica y profesional.**
- ↳ **Potencia los hábitos saludables (prevención de la drogodependencia, SIDA, educación sexual...) y la enseñanza en valores.**
- ↳ **Ofrece ayuda individualizada.**
- ↳ **Con profesionales de amplia formación**
- ↳ **Sitúa a los/las alumnos/as ante sus itinerarios de futuro**

🔗 COMEDOR

Servicio ofrecido a los alumnos de todas las edades, con comida preparada en el propio comedor y dirigido por cuidadoras que han recibido formación par ello.



🔗 TRANSPORTE

Con el objetivo de trabajar por la sostenibilidad y en colaboración con otros agentes de la comarca, el transporte público es el eje de nuestro servicio de transporte. Los alumnos/as de Ataun, Beasain y Olaberria son usuarios de este servicio.

Pero también, adaptado a los diversos horarios escolares, se ofrece a los alumnos y alumnas de Idiazabal, Mutiloa, Gabiria, Segura y Zerain.



🔗 ACADEMIA DE INGLÉS

En la ikastola tenemos Academia de Inglés y es **centro examinador del Trinity College London**. En horario extraescolar se imparten clases de inglés dirigidas a alumnos de la Ikastola. También hay clases intensivas para la preparación del Preliminary English Test (PET), First Certificate y Advanced. La academia de idiomas es parte de la ikastola por lo que se mantiene una relación de coordinación con el profesorado de inglés, teniendo así una oportunidad excelente para conocer las necesidades de los alumnos.

En nuestra academia todos los cursos están organizados para satisfacer las necesidades de todos los alumnos. Dependiendo de la edad, tienen 2 ó 3 horas a la semana. En este momento la responsable de la academia es Silvana Beaskoetxea, academia de idiomas de la Ikastola que este curso cuenta con más de 200 alumnos/as de la Ikastola. **El grupo de profesores que dirige tiene mucha experiencia en la enseñanza de idiomas y varios son nativos.** Todos los años prepara alumnos de la Ikastola con el objetivo de lograr los correspondientes títulos de inglés.

En estos momentos tenemos la oportunidad de hacer los exámenes de Trinity, Preliminary English Test (PET) y First Certificate en la propia Ikastola.



🔗 REPRESENTACIÓN DE FAMILIAS DE AULA/CURSO

Los padres y las madres han jugado desde siempre un papel central en el gobierno de la Ikastola: antes, participaban en la junta de la Ikastola; ahora, tras convertirse en cooperativa, son miembros de la Junta Rectora (11 representantes de un total de 16), en la Comisión de Vigilancia y en la Comité de Recursos.

También las demás familias, a través su representación como padres/madres de aula, se convierten en agentes más activos en la educación de sus hijos o hijas y en la vida de la Ikastola. La Ikastola ofrece una oportunidad más en la comunicación con y entre ellos y ellas. Es un paso muy importante, toda vez que la implicación y la participación de los padres y las madres en la Ikastola aporta calidad al proyecto global.

Los objetivos principales son dos: impulsar la participación de los padres, tanto en la vida de la ikastola como en la educación de los hijos e impulsar la comunicación entre los padres y madres. Tenemos que tener en cuenta que no educamos a nuestros hijos de manera aislada: lo hacemos en grupo, junto con sus amigos y su familia.

🔗 TALLER DE TEATRO

Los alumnos/as de Primaria, ESO y BACHILLER tiene la posibilidad de subirse a un escenario en el taller de teatro que organiza el ayuntamiento con la colaboración de la Ikastola. Además de aprender la diferentes técnicas de interpretación, al final de curso nos ofrecen una obra de teatro fruto de su trabajo realizado. Kristina Roperó es la profesional que dirige el taller que cuenta.



🔗 “BERTSO ESKOLA”

De la mano de “Goierriko Bertso Eskola”, durante el curso, en la misma ikastola.

🔗 NOTICIAS DE LA IKASTOLA

